

BEASAINGO UDALA

BEASAINGO UDALERRIAN MERKATARITZA ARLOAN LAN EGITEN DUTEN ELKARTEEI DIRULAGUNTZA EMATEKO OINARRI ARAUTZAILEAK.

Argitara ematen da deialdiaren laburpena dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoari jarraituz. Testu osoa Dirulaguntzen Datutegi Nazionalean kontsulta daiteke: (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans>).

1. Dirulaguntzaren xedea.

Oinarri hauen xedea hau da Beasaingo udalerrian merkataritza arloan lan egiten duten elkarteei (merkataritza sustatzeko jarduerak gauzatzeko), dirulaguntzak emateko baldintzak arautzea.

2. Dirulaguntza eskatzeko bete behar diren baldintzak

- a) Hizkuntza irizpideak. Diruz lagundutako bere jardunean argitaratzen dituzten idatzi, iragarki, ohar eta gainerako agiriak euskaraz behintzat idatzi eta ezagutzera eman beharko dira. Ahozko adierazpenetan euskarari emango zaio lehentasuna.
- b) Generoa eta Berdintasuna. 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabe Bizitzeko Legearen Testu Bategina onartzen duena hartuko da kontuan.
- c) Publizitatea. Beasaingo Udalaren aipamena egingo da kolaboratzaile gisa.
- d) Dirulaguntza ematea arrazoitu duten helburua betetzea, egitasmoa/ekintza burutzea eta gauzatu dela egiaztatzea Udalaren aurrean.
Edozein arrazoiengatik ekintzaren bat gauzatzen ez bada, Merkataria Elkarteak itzuli beharko du ekintza horretarako emandako dirulaguntza.
- e) Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko dituzten beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabideak lortu izana jakinaraztea Beasaingo Udalari.

3. Dirulaguntzaren zenbatekoa

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzak norgehiagoka-erregimenean emango dira, hau da: aurkeztutako eskabideak alderatuko dira, lehentasun-hurrenkera bat ezartzeko, adierazitako balorazio-irizpideen arabera. Horrela, kasuan kasu finkatutako irizpideak jarraituz, diruz lagundutako jardueren kalitatea eta bideragarritasuna bermatuko duen laguntza kopurua hautatuko da soilik.

Laguntza horietarako gehieneko zenbatekoa (14.000€) aurkeztutako eskaeren proportzioan banatuko da.

Proiektuak behar bezala baloratzeko ondorengo hautaketa irizpideak egiaztatzen duten agiri guztiak aurkeztu beharko dira.

Gehienera ere 100 puntu emango dira.

Gutxienez 30 puntu lortzen dituzten proiektuek soilik jaso ahal izango dute dirulaguntza.

4. Eskaerak non eta noiz aurkeztu

Oinarriak BDNSra bidaliko dira, eta GAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, eskabideak aurkezteko epea zenbatzen hasiko da eta 2025eko maiatzaren 30a arte izango da.

Eskaerak, telematikoki aurkeztu beharko dira Beasaingo Udalaren www.beasain.eus helbidean.

Udalak ikusiko balu, eskaera osatu gabe dagoela, 10 egun balioduneko epea emango dio eskatzaileari dokumentuak zuzentzeko. Epe hori amaitzen denean huts horiek zuzendu gabe baleude, eskaera artxibatu egingo da beste izapiderik egin gabe.